

ESTATUKO ALDIZKARI OFIZIALA (BOE), 2010eko abenduaren 31, ostirala.

HEZKUNTZA MINISTERIO

Abenduaren 30eko 1791/2010 Errege Dekretua, Unibertsitateko Ikasleen Estatutua onartzen duena.

(Euskarazko bertsioa, UPV/EHUko Itzulpen Zerbitzuak egindakoa)

UNIBERTSITATEKO IKASLEEN ESTATUTUA

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua.- Helburua eta aplikazio-esparrua.

1. Unibertsitateko ikasleen estatutu honek, unibertsitateko ikasleen eskubideak eta betebeharrak garatzea eta Estatuko Ikasle Unibertsitarioen Kontseilua sortzea ditu helburu, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 lege organikoaren 46. artikulua xedaturikoa betez.

2. Ikasle unibertsitarioaren estatutu hau Espainiako unibertsitate publiko eta pribatuetako ikasle guztiei aplikatzekoa izango da, bai berezko ikastegietakoak nola ikastegi atxikietakoak eta unibertsitateon menpeko hezkuntza etengaberako ikastegietakoak.

3. Unibertsitateek eskainitako irakaskuntza ofizialik egiten ari diren pertsona guztiak oro dira ikasle, unibertsitateko hiru zikloetako batean, etengabeko hezkuntzarako irakaskuntzan eta bestelako ikasketetan.

II. KAPITULUA

Ikasleen eskubide eta betebeharez

2. artikulua. Eskubide eta betebeharren berdintasuna.

1. Unibertsitateko ikasle guztiek dute bermatuta eskubide eta betebeharren berdintasuna, zein bere unibertsitate-ikastegia, egiten ari den ikasketak eta hezkuntza-etapa edozein direlarik eta matrikulaturik dauden bitartean.

2. Berdintasun hori, beti ere, unibertsitate-erantzukidetasunaren printzipio orokorraren menpe gauzatuko da, beti ere, eskubideen eta askatasunen baliatzerakoan izan beharreko elkarrekotasunean eta pertsona eta unibertsitate-erakundearekiko errespetuan oinarri harturik, unibertsitatea osatzen duten guztien ondasun gisa ulerturik.

3. artikulua. Eskubideak eta betebeharrak baliatzeko arau-esparrua.

Ikasle unibertsitarioen eskubide eta betebeharrak baliatu ahal izateko, estatuko eta kasuan kasuko autonomi erkidegoko arautegia, unibertsitateen estatutuak eta honako estatutu hau errespetatu beharko da.

4. artikulua.- Bereizkeriarik ez.

Unibertsitateko ikasle guztiek, zein bere jatorria edozein delarik ere, bereizkeria ez jasateko eskubidea dute, jaiotzea, arraza edo etnia-jatorria, sexua, erlijioa, sinesmen edo iritziak, adina, minusbaliotasuna, nazionalitatea, gaixotasuna, sexu-orientazioa edo genero-identitatea, ekonomi eta gizarte-egoera, hizkuntza edo mintzaira, edo kidetasun politiko eta sindikala edo itxura, gain-pisua edo obesitatea edo beste edozein ezaugarri edo baldintza pertsonal edo soziala aitzakia harturik, arau demokratikoak eta hiritarrekiko errespetuzkoak onartzeko baldintza bakarra izanik, espainiar gizartearen konstituzio-oinarria baitira.

5. artikulua. Kualifikazio akademiko eta profesionalak.

Unibertsitateek garatu beharreko ekintzak garatu beharko dituzte, ikasleek irakaskuntza-ziklo bakoitzean programaturiko jakintzak eta gaitasun akademiko eta profesionalak lortu ahal ditzatela bermatzeko. Era berean, unibertsitateek, zeinek bere hezkuntza-helburuetan, sartu beharko dituzte prestakuntza pertsonala eta balioen hezkuntza.

6. artikulua. Jakintza eta gaitasunen aitortzea.

1. Legeak eta unibertsitateek garatutako arauak aurreikusitakoarekin bat etorrira eta mugikortasunerako eskubidea, indarreko arauak errespetatuz, bermatzearen, ikasleek eskubidea izanen dute, unibertsitate-hezkuntzaren edozein etapatan, ordura arte jasotako jakintzak eta gaitasun eta esperientzia profesionala aitortzeko. Aitortze hori, hala balegokio, sartu egingo da Tituluaren Europar Gehigarrian.

2. Unibertsitateek ezarri beharreko neurriak ezarriko dituzte, ikasleek egin eta titulazio ofizialik lortzeko xederik ez duten irakaskuntzak osorik edo zatika aitortzeko, baldin eta titulua iraungi eta, bere orde, graduako titulu ofiziala ezarri bada.

3. Unibertsitateek ezarri beharreko prozedurak ere ezarri beharko dituzte, ikasleek egin dituzten irakaskuntzak eta jasotako ikasketak Goi Hezkuntzarako Kualifikazioen Espainiar Markoarekin bat etorrira aitortzeko.

4. Nolanahi ere, jakintza eta gaitasunen aitortzea indarreko legeriak ezarritako baldintzen arabera egingo da.

7. artikulua. Ikasle unibertsitarioen eskubide komunak.

1. Unibertsitateko ikasleek honako eskubide komun hauek dituzte, banaka zein taldeka:

a) Bere aukerako unibertsitatean ikasteko eskubidea, ordenamendu juridikoak xedaturikoarekin bat datorrelarik. Halaber, eskubidea izango dute unibertsitateek gerora ikasle izango dituztenentzako informazio eta orientazio-programak sustatu ditzaten, nor bere ikerkuntza, kultura eta gizarte-erantzukizunaren bizitzan eta jardunean zehar, ahalik eta erarik onenean integratuko badira bertako hezkuntza-

egituretan, mailetan eta eremuetan. Unibertsitateko ikasleek eskubidea dute unibertsitate-politikaren diseinuan, jarraipenean eta balioespenean parte hartzeko.

b) Aukera-berdintasunerako eskubidea, ezelako bereizkeriarik gabe, unibertsitatera sartu, ikastegietan ikasi, unibertsitatean iraun eta akademi eskubideak baliatzeko orduan.

c) Kalitatezko akademi hezkuntza jasotzeko eskubidea, aukeratutako ikasketei dagozkien gaitasunak berenganatzearen, jakintzak, gaitasunak, jarrerak eta balioak barne dituelarik; kultura demokratikoaren eta hurkoarekiko eta inguruarekiko errespetuaren berezko balioak, bereziki.

d) Ikasketak lan eta famili bizitzarekin ahalik eta bateragarrien egingo duen arreta eta akademi jardueren diseinua jasotzeko eskubidea, bai eta genero-indarkeriaren emakume biktimek beren eskubideak baliatzeko ere, unibertsitatearen antolakuntza eta aurrekontuen baliabideen neurrian.

e) Irakasle, tutore eta ikaslearentzako arreta-zerbitzuen aholkularitza eta laguntza jasotzeko eskubidea, estatutu honetan ezarritakoarekin bat etorrira.

f) Bokazio, akademia eta lanbideari buruzko informazio eta orientazioa jasotzeko eskubidea, bai eta unibertsitateek beren jardueri eta ikasleen esparruan eraginik izango luketen jardueri buruzko aholkularitza jasotzekoa ere, eta bereziki, unibertsitate-hedakuntzaz, unibertsitate-lojamenduaz kirol eta bizitza osasuntsuaren bestelako alderdiez eta lan-munduratzeari buruzko jarduerak direnean.

g) Unibertsitateak ebaluazio eta kalifikazioak berrikusteko prozeduraren inguruan ezarritako arauetara buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.

h) Ebaluazio objektiboa eta, ahal delarik, jarraitua jasotzeko eskubidea, irakaskuntza eta ikaskuntzarako metodologia aktiboa oinarri duena.

i) Unibertsitate arloko kultura, kirola, ikasleen ordezkartza, solidaritate eta lankidetzaren arloko jardueretan izandako parte hartzearengatik aintzatespen akademikoa lortzeko eskubidea, indarreko legeriak jasotakoaz bat etorrira.

j) Lan-esperientzia eta jardun profesionala akademi ondorioetarako balioztatzeko eskubidea, unibertsitateak, indarreko arautegiaren barruan, xedatutakoarekin bat etorrira.

k) Mugikortasun nazional zein nazioartekorako programetan parte hartzeko eskubidea, indarreko legeriaren barruan.

l) Unibertsitateek eta gainerako erakundeek lan-mundura sartzeko garatuko lituzketen programa eta behatokiak ezagutu eta berauetan parte hartzeko eskubidea.

m) Akademi instalazio egoki eta erabilerrazak baliatzeko eskubidea, zein bere hezkuntzaren arloarekiko.

n) Arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza jaso eta bere osasuna eta segurtasuna bermatzeko bitartekoak izateko eskubidea, ikaskuntza-jarduerak burutzerakoan.

o) Deialdi nazionaletako ikasteko beka eta laguntzen eramangarritasuna izateko eskubidea, beka eta laguntza hauek lurralde nazional osoan gozatu ahal direla ulertuz, bai eta unibertsitateen berezko beken eramangarritasuna ere, kasuan kasuko deialdietan ezarriko liratekeen betekizunekin bat etorrira.

p) Bizitzan zehar unibertsitate-hezkuntza jasotzeko eskubidea eta, honetarako, unibertsitateek onarpen-mekanismo espezifikoak ezarriko dituzte, hauen berri behar bezala emanik.

q) Unibertsitateek boluntariotzaren, gizartearen parte-hartzearen, garapenerako lankidetzaren eta gizarte-erantzukizunaren arloetan antolatuko lituzketen jardueretan parte hartzeko eskubidea.

r) Adierazpen, biltzeko eta elkartzeko askatasunerako eskubidea unibertsitate-arloan, ezelako bereizkeria zuzen eta zeharkakotik at, hezkuntza-gestioaren erantzunkidetasunaren eta pertsonetikiko eta unibertsitate-erakundearekiko errespetu proaktiboaren lekuko eta adierazle.

s) Unibertsitateko gobernu eta ordezkaritza-organoetan ordezkaritza eraginkor eta partaidetzazkoa izateko eskubidea, erantzukizun kolektiboaren markoaren barruan, estatutu honetan eta tokian tokiko unibertsitate-antolamendu eta funtzionamendurako estatutu eta arauetan ezarritakoaz bat eginik.

t) Zeinek bere akademi jarduera burutzen duen unibertsitatearen gobernu-organoen hautaketan parte hartzeko eskubidea, tokian tokiko estatutuan aurreikusitakoaren arabera.

u) Unibertsitatean aplikatu eta bertako gizarte-kontseiluak onetsi beharreko iraute-arauei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea, bai eta hauen ezarpen eta funtzionamenduan erantzunkidetasunez parte hartzekoa ere.

v) Beren datu pertsonalak Datu pertsonalen babesteko legeak araututako xedeekin eta ez bestela erabiliak izan daitezten.

w) Sexu-bereizkeriarik gabeko tratua jaso eta emakume eta gizonen arteko berdintasun-aukerarako eskubidea, emakume eta gizonen arteko egiazko berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 lege organikoak ezarritako printzipioak aintzat harturik.

x) Ikasketetan zehar eginiko lanen egiletza aitortu eta hauen jabego intelektualaren babeserako eskubidea.

Eta, hauez gain, legeria orokorrean, autonomi erkidego ezberdinetako arautegietan eta unibertsitateen estatutu eta berezko arauetan aitortuko zaizkien eskubide guztiak.

2. Goi hezkuntzaren gizarte-dimentsioarekiko eta ikaskuntza bizitza osoan zehar mantentzeko konpromezuaren barruan, unibertsitate-arloan eskumenik duten administrazio publikoek eta unibertsitateek, zein bere aurrekontu-baliabideen barruan, hartu beharreko neurriak hartuko dituzte eskubideok denbora partzialeko ikasleek ere balia ditzaten eta, bereziki, kualifikazioak ikaskuntza malguko ibilbideak osatuz eskuratu ahal izatekoa. Xede honetarako, halakorik nahiko luketen ikasleek denbora partzialeko ikasleen aitortza eskatu ahal izango diote bere unibertsitateari, halako izaera identifikatuko duena.

8. artikulua. Graduak ikasleen eskubide espezifikoak.

Graduko ikasleek honako eskubide espezifiko hauek dauzkate:

a) Graduak tituluak egiaztatzeko oroitidazkiei buruzko informazioa jaso eta hauek egiten parte hartzeko eskubidea.

b) Aurretiazko hezkuntza aintzat hartzeko eskubidea edo, hala balegokio eta bidezkoa balitz, aldeztu aurretik burututako lan edo lanbide-jarduerak aitortzeko eskubidea.

c) Irakaskuntza-taldea aukeratzeko eskubidea, halakorik dagokionean eta unibertsitateak xedaturikoaren arabera, bestelako lanbide-jarduerak, akademiak kanpokoak eta familiakoarekikoak ikasketekin bateratzeko bidea eskainiz eta, bereziki, genero-indarkeriaren emakume biktimen eskubideak baliatzearen.

d) Kalitatezko hezkuntza teoriko eta praktikoa jasotzeko eskubidea, aurretiko irakaskuntzetan ezarritakoaren arabera jasotako gaitasunekin bat etorri beharko duena.

e) Orientazioa eta tutoretza pertsonalizatua jasotzeko eskubidea, lehenengo ikasturtean eta ikasketetan zehar unibertsitate-ingurura errazago egokitzearen eta akademiak etekina hobetzearen, bai eta ikasketen amaieran ere, lan-mundura sartu, lanbide-garapena sakondu eta unibertsitate-hezkuntzan jarraitzearen.

f) Praktikak, curriculum barruko zein kanpokoak, egiteko aukera izateko eskubidea, kanpoko erakundeetan eta unibertsitatearen ikastegi, egitura edo zerbitzuetan burutu ahal izango direnak, kasu bakoitzean aurreikusitako motaren arabera eta praktiken prestakuntza-zioa beti ere bermatuz.

g) Gradu-amaierako lanean eta, halakorik denean, ikasketen-planetan aurreikusitako kanpoko praktiketan, tutoretza akademiko eta profesional eraginkorra izateko eskubidea.

h) Gradu-amaierako lanaren eta aurretiazko ikerketa-lanen gaineko jabetza intelektuala aintzat hartu eta berau babesteko eskubidea, indarreko legeriak arlo honetan ezarritakoaren arabera.

i) Mugikortasun nazional edo nazioartekorako programa eta laguntza-deialdietan parte hartzeko eskubidea, bereziki ikasketen bigarren erdian zehar.

j) Erakunde-balioespenerako prozesuetan eta unibertsitate-kalitatea ziurtatzeko agentzietan parte hartzeko eskubidea.

9. artikulua. Masterreko ikasleen eskubide espezifikoak.

Masterreko ikasleek honako eskubide espezifiko hauek dauzkate:

a) Masterreko tituluak egiaztatzeko oroitidazkiei buruzko informazioa jaso eta hauek egiten parte hartzeko eskubidea.

b) Aurretiazko hezkuntza aintzat hartzeko eskubidea edo, hala balegokio eta aintzat hartzea bidezkoa balitz, masterreko ikasketak baino lehenagoko lan edo lanbide-jarduerak aitortzeko eskubidea.

c) Irakaskuntza-taldea aukeratzeko eskubidea, halakorik dagokionean eta unibertsitateak xedaturikoaren arabera, bestelako lanbide-jarduerak, akademiak kanpokoak eta familiakoarekikoak ikasketekin bateratzeko bidea eskainiz.

d) Kalitatezko hezkuntza teoriko eta praktikoa jasotzeko eskubidea, tituluan aurreikusitako lanbide-helburuekin edo ikerkuntzari ekiteko zioarekin bat etorri beharko duena.

e) Orientazioa eta tutoretza pertsonalizatua jasotzeko eskubidea, akademi errendimendua, jarduera profesionalerako prestakuntza edo ikerkuntzan hasteko lehenengo urratsak erraztearren.

f) Praktikak, curriculum barruko zein kanpokoak, egiteko aukera izateko eskubidea, kanpoko erakundeetan eta unibertsitatearen ikastegi, egitura edo zerbitzuetan burutu ahal izango direnak, kasuan kasu aurreikusitako motaren arabera eta praktiken prestakuntza-zioa beti ere bermatuz.

g) Master-amaierako lanean eta, halakorik izatekotan, ikasketa-planetan aurreikusitako kanpoko akademi praktketan, tutoretza akademiko eta profesional eraginkorra izateko eskubidea.

h) Master-amaierako lanaren eta aurretiazko ikerketa-lanen gaineko jabetza intelektuala aintzat hartu eta berau babesteko eskubidea, indarreko legeriak arlo honetan ezarritakoaren arabera.

i) Mugikortasun nazional edo nazioartekorako programa eta laguntza-deialdietan parte hartzeko eskubidea.

j) Erakunde-balioespenetarako prozesuetan eta unibertsitate-kalitatea ziurtatzeko agentzietan parte hartzeko eskubidea.

10. artikulua. Doktoregoko ikasleen eskubide espezifikoak.

Doktoregoko ikasleek honako eskubide espezifiko hauek dauzkate:

a) Ikerkuntzarako kalitatezko prestakuntza jasotzeko eskubidea, zientzi bikaintasuna sustatu eta gizarte-erantzukizuna eta zuzentasuna aintzat hartuko dituen.

b) Prestakuntza-prozesua orientatuko duen tutorea izateko eskubidea, bai eta, doktorego-tesia egin bitartean, gainbegiraketa-lana egingo dion zuzendariak eta, dagokionean, zuzendarikideak, ikerkuntz gaitasun egiaztatua izan dezaten ere.

c) Unibertsitateek eta doktorego-eskolek zeinek bere hirugarren zikloko programetan doktoregaiak ikerketa-talde eta sareetan integratzea susta dezaten.

d) Ikerkuntzaren karrera profesionala ezagutzeko eskubidea, bai eta unibertsitateek beren programetan ikerkuntzaren karrera garatzeko aukerak susta ditzaten ere.

e) Ikerkuntz prestakuntzarako eta mugikortasun nazional edo nazioartekorako programa eta laguntza-deialdietan parte hartzeko eskubidea.

f) Doktorego-tesiaren eta aurretiazko ikerketa-lanen gaineko jabetza intelektuala aintzat hartu eta berau babesteko eskubidea, indarreko legeriak arlo honetan ezarritakoaren arabera.

g) Unibertsitateen gobernu-organoetarako ordezkari-tza-eskubideei dagokienean, prestakuntzan ari den pertsonal ikertzaile gisako izaera jasotzeko eskubidea, legeriak zientzia eta ikerkuntzaren arloan ezar lezakeenaren arabera.

h) Doktorego-programen jarraipenean eta erakunde-balioespenerako prozesuetan parte hartzeko eskubidea, indarreko legeriak aurreikusita legez.

11. artikulua. Unibertsitateek eskainitako hezkuntza etengabeko eta bestelako ikasketetako ikasleen eskubide espezifikoak.

Ikasle hauek honako eskubide espezifiko hauek dituzte:

a) Unibertsitateek beren hezkuntza etengaberako programak kalitatezko irizpideez gara ditzaten eta bertaratzeko onarpen-sistema malguekin, aurretiazko prestakuntza, lan eta lanbide-jarduera aintzakotzat edukita.

b) Prestakuntza, ahal den heinean, famili eta lan-bizitzarekin bateragarri egiteko eskubidea eta, halakoetan, genero-indarkeriaren emakume biktimen eskubideak balia daitezen bermatzekoa; eta, hauen lortzeko, unibertsitateek, beren bitartekoen barruan, ordutegiak malgutasunez antolatuko dituzte.

c) Zerbitzuen karta eskuratzeko eskubidea, unibertsitateek osatu eta ikasturtero zabalduko dutena, arlo honetarako bere eskaintza zehaztasunez azalduta. Delako zerbitzuen karta honek, gutxien dela, eskaintzen diren jardueren mota eta iraupena, balio akademikoaren mugak, halakorik dagokienean, eta, jarduerok burutzeko balia daitezkeen bitartekoak jasoko ditu.

12. artikulua. Eskubideen eraginkortasuna.

Unibertsitateek, 7.etik 11. artikuluko bitartean jasotako eskubideek erabateko eraginkortasuna izan dezaten:

a) Eskubideon berri emango die ikasleei eta hauek baliatzea erraztuko.

b) Ezarri beharreko baliabideak eta egokitzapenak ezarriko dituzte, ikasle minusbaliatuek eskubide hauek gainerako ikasleen berdintasunean baliatuko badituzte, eskaturiko akademi maila ezelan ere ukitu eta murriztu barik.

c) Eskubideon baliatzeko aukera bermatuko dute prozedura egokiak ezarriz eta, behar izanez gero, unibertsitarioen defendatzailearen jardunaren bidez.

13. artikulua. Ikasle unibertsitarioen betebeharrak komunak.

1. Unibertsitateko ikasleek gain hartu behar dute unibertsitatean presentzia eraginkor eta erantzunkidetasunezkoa izateko konpromezua, bere unibertsitatea ezagutu behar dute eta bere estatutuak eta arauzko prozeduren bidez onetsitako funtzionamenduzko arauak errespetatu.

2. Konpromezu honen adierazle eta lekuko, unibertsitateko ikasleen betebeharrak honako hauek izango dira:

a) Ikastea eta bere hezkuntza osatuko duten akademi jardueretan aktiboki parte hartzea.

b) Unibertsitate-komunitateko kideak, erakunde lankideetako pertsonala edo unibertsitatearen zerbitzuan ari den pertsonala errespetatzea.

c) Unibertsitatearen edo beronen erakunde laguntzaileen ondasun, ekipa, instalazio zein eremuak behar bezala erabili eta zaintzea.

d) Balioespen-probetan, egin beharreko lanetan edo unibertsitatearen dokumentu ofizialetan iruzurrezko prozedurarik ez erabiltzea eta horietarako laguntzarik ez ematea.

e) Unibertsitate-jardueretan erantzukizunez parte hartzea eta hauek behar bezala gara daitezen laguntzea.

f) Unibertsitatearen estatutuak eta gainontzeko erregelamenduetako arauak ezagutu eta betetzea.

g) Segurtasun eta osasunari buruzko barne arauak ezagutu eta betetzea, bereziki praktiketarako laboratorioen eta ikerkuntza-eremuaren erabilerari dagozkionak.

h) Unibertsitatearen edo bertako organoen izena, sinboloak eta ikurrak errespetatzea, bai eta behar bezala erabiltzea ere.

i) Unibertsitateko akademi ekitaldiak errespetatzea, bai eta berorietan parte hartzea ere, norberaren adierazpen eta adierazteko eskubidea ezertan ere ukitu gabe.

j) Unibertsitate-komunitateko kideen, erakunde lankideetako pertsonalaren edo unibertsitatearen zerbitzuan ari den pertsonalaren kontrako bereizkeriaren aurka eraginkortasunez aritu eta sustatzea, arrazoa jaiotzea, arraza edo etnia-jatorria, sexua, erlijioa, sinesmen edo iritziak, adina, minusbalotasuna, nazionalitatea, gaixotasuna, sexu-orientazioa edo genero-identitatea, ekonomi eta gizarte-egoera, hizkuntza edo mintzaira, edo kidesun politiko eta sindikala edo itxura, gain-pisua edo obesitatea edo beste edozein ezaugarri edo baldintza pertsonal edo soziala delarik ere.

k) Ordezkaritza-karguren baterako hautatuz gero, ordezkaritza-karguaren berezko eginbeharrak egitea.

l) Ordezkatzen dituztenei parte hartzen duteneko organo bilduen jardueren eta erabakien berri eta beraiek egindakoen berri ematea, beti ere organo horietan ezarritako zuhurtasuna eta diskrezioa gorderik.

m) Hautatu duteneko organo bilduen bileretan eraginkortasunez eta erantzukizunez parte hartzea.

n) Unibertsitatearen helburuen eta funtzionamenduaren hobekuntzan laguntzea.

o) Matrikulaturik dagoeneko unibertsitatearen estatutuetan ezarriko litzaiokeen beste edozein betebeharrak.

III. KAPITULUA

Unibertsitaterako sarrera eta onarpenaz

14. artikulua. Unibertsitateko irakaskuntzetarako sarrera eta onarpena.

1. Legeriak eskaturiko betebeharrak biltzen dituzten ikasleek eskubidea dute edozein espainiar unibertsitateko irakaskuntza ofizialetara sartzeko eskaria egiteko, indarreko legeek aurreikusitako prozedurekin bat etorruta.

2. Matrikularako tramiteak erraztearren eta ikasleari bere curriculum diseinatzen laguntzeko, unibertsitateek gestio eta aholkularitzarako mekanismoak jarriko dituzte, indarreko arauen arabera.

15. artikulua. Minusbaliotasunik duten ikasleen sarrera eta onarpena.

1. Sarrera eta onarpenerako prozedurak, gobernuak, autonomia-erkidegoek eta unibertsitateek ezarritako arauen barruan, minusbaliotasunik duten pertsonen behar espezifikoetara moldatuko dira, unibertsitatearen arloan aukera-berdintasuna eta erabateko integrazioa bermatze aldera.

2. Era berean, unibertsitateek erabilerraz eta irisgarri egingo dituzte bertako eremu eta eraikinak, bai eta espazio birtualak ere, eta ikasle minusbaliatuen eskura jarriko dituzte giza baliabide eta bitarteko material eta tekniko nahikoak, unibertsitate-komunitatean aukera-berdintasuna eta erabateko integrazioa lortuko badira.

IV. KAPITULUA

Ikasleen mugikortasunaz

16. artikulua. Mugikortasun-programak.

1. Unibertsitateek mugikortasun-programak eskainiko dizkie ikasleei, maila nazional zein nazioartekoan, unibertsitateen arteko lankidetzaz sustatzeko sinatu beharreko komenioak sinatuz. Programa hauek titulazioaren beraren akademi prestakuntza eta ikasleen prestakuntza integralaren bestelako alorrak jasoko ditu, besteak beste, balioen prestakuntza zeharkakoa, enpleguari orientaturiko prestakuntza eta unibertsitateak bere printzipio eta helburuetan sustatuko lukeen beste edozein alor.

2. Halaber, unibertsitateek nazio eta nazioarteko mugikortasunerako programa espezifikoak sustatu ahal izango dituzte gradu-amaierako eta master-amaierako lanak egin daitezkeen, bai eta kanpoko praktikak egiteko ere, espainiar legerian atzerriartasunaz eta immigrazioaz ezarritako aurreikuspenak beti ere errespetatuz.

3. Oro harturik, mugikortasun-programak unibertsitate-irakaskuntzaren hiru zikloetako edozeinetan garatu ahal izango dira, gradua, masterra zein doktoregoan, alegia.

a. Gradu irakaskuntzako ikasleek mugikortasun-programetan hartuko ahal dute parte eta, lehentasunez, ikasketak hauen bigarren etapan.

b. Masterreko ikasketetako ikasleek mugikortasun-programetan hartuko ahal dute parte, gehien dela, sei hileko batez 60 eta 90 kreditu bitarteko master-tituluetan; eta ikasturte oso batez, 90 eta 120 kreditu bitarteko master-tituluetan.

c. Nazioarteko doktoregoko irakaskuntzako ikasleek mugikortasun-programetan hartuko ahal dute parte beren doktorego-programaren ikerketa-aldian zehar. Egonaldi hauen luzera, beroriei dagokion arautegian ezarritakoa izanen da.

4. Ikasleen parte-hartzea erraztearren, unibertsitate-arloko eskumenik duten administrazioek eta unibertsitateek finantzaketa-sistemak bultzatuko dituzte, prestakuntza-egonaldiek edo titulazio-amaierako lanak edo kanpoko praktikak burutzeko aldiek eragindako gastuak estaltzen laguntzeko.

5. Ikasleek laguntza eta beka eskuratu ahal izango dituzte, helburuko ikastegian egin beharreko egonaldi-irakaskuntza-lojamendu eta mantenu-gastuak ordaintzen laguntzeko, kasu kasu legokiekeen mugikortasunerako laguntza-arautegiak ezarritakoarekin bat eginik. Laguntza hauek emateko, estatuko administrazio orokorrak eta autonomia-erkidegoek kontratu-programak edo bestelako finantzaketa-formulak sustatu ahal

izango dituzte unibertsitateekin, egonaldia egin beharreko herrialdearen benetako kostuetara moldatzeko eta progresibitatearen printzipioak aplikatuz.

17. artikulua. Aintzatespen akademikoa eta mugikortasuna.

1. Unibertsitateek, zeinek bere arautegiarekin bat etorrira, prozedura egokiak ezarri beharko dituzte mugikortasuneko programetan parte hartuko duten ikasleek, helburuko unibertsitatean hasi baino lehen, jakin dezaten, ikasketa-akordio edo kontratuaren bidez (berezko arautegi horretan aurreikusitako deituraren arabera), akademikoki zeintzuk irakasgai aintzat hartuko zaizkien jatorrizko unibertsitatean burutzen ari den titulazioaren ikasketa-planean.

2. Ikasleei irakasle tutore bat izendatuko zaie eta beronekin osatu beharko dute nazio edo nazioarteko mugikortasun-programari egokituko zaion ikasketa-akordio edo kontratua. Dokumentu honetan, jasoko dira, izaera lotesleaz, helburuko unibertsitatean garatuko diren akademi jarduerak eta jatorrizko unibertsitatekoekin izanen duten korrespondentzia; bai eta, halakorik behar izanez gero, europar kreditutan izanen duten balioespena eta jarduerok egiteko baldintzen ez betetzearen ondorioak ere.

3. Jakintza eta gaitasunak aintzatesteari dagokionez, unibertsitateek garatutako akademi jardueren hezkuntza-balio orokorrari begiratuko diote eta ez irakasgai eta programen arteko berdintasunari edo kredituen baliokidetzaz osoari.

4. Helburuko unibertsitatean burututako akademi jarduerak aintzatesi eta ikaslearen espedientearen sartuko dira jatorrizko unibertsitatean, egonaldia behin amaitu ondoren edo, nolana ere, dagozkien akademi ikasturtearen amaieraz, kasuan kasu erdietsitako kalifikazioak zehaztuz. Xede honetarako, unibertsitateek kalifikazioen korrespondentzia-taulak ezarriko dituzte mugikortasunerako komenio bitariko bakoitzean.

5. Ikasleak parte hartu duteneko mugikortasun-programak eta bere akademi emaitzak, bai eta ikasketa-akordio edo kontratuan agertu ez baina helburuko unibertsitateak egiaztatu dituen jarduerak ere, Tituluaren Europar Gehigarrian jasoko dira.

18. artikulua. Minusbaliotasunik duten ikasleen nazio eta nazioarteko mugikortasuna.

Administrazioek eta unibertsitateek sustatu egingo dute ikasle minusbaliatuek nazio eta nazioarteko mugikortasun-programetan parte har dezaten, ezarri beharreko kupoak ezarriz, kasuan kasuko finantzaketa nahikoa bermatuz, bai eta informazio-sistemak eta ikasle hauentzako arreita-unitateen arteko lankidetzaz ere.

V. KAPITULUA

Tutoretzez

19. artikulua.- Printzipio orokorrak.

1. Ikasleek orientazioa eta zeharkako jarraipena jasoko dituzte beren titulazioari buruz. Informazio honek, besteak beste, honako alderdi hauek jasoko ditu: a) Titulazioaren helburuak; b) Titulazioaren bitarteko pertsonalak eta baliabide materialak; c) Ikasketen egitura eta programazio progresiboa; d) Aplikatzen diren irakaskuntza-metodologiak; e) Ebaluaziorako prozedurak eta kronogramak; f) Kalitatearen

adierazleak, esaterako, ikasketen akademi errendimendu aurreikusia eta benetakoa edo titulatu laneratze-tasak.

2. Orientazio-programak garatzerakoan eta autonomi arautegietan eta unibertsitateen berezkoetan ezarritakoarekin bat, ikastegiak titulaziorako koordinatzaileak eta tutoreak izendatuko ahal dituzte, kalitatezko orientazioa egiteko eginkizuna izango dutenak, irakaskuntza ikasleen prestakuntza integral eta kritikoa baita eta lanbide-jardunerako ariketa moduan sendotu eta osatzeko helburuaz. Urruneko unibertsitateen kasuan, tutoreen irudia eta bere jarduerak beren irakaskuntza eta ebaluazio-metodologiara egokituko dira.

3. Unibertsitateek, autonomi arautegian eta unibertsitateen berezkoetan ezarritakoarekin bat datozelarik, tutoretza-sistemak bultzatuko dituzte, irakasleek eta pertsonal espezializatuak garatuko beharrekoak eta ikasleentzako informazio, orientazio eta hezkuntza-sostenguaren arloan eskainitako ekintza guztiak, modu koordinatuan, integratuz.

4. Unibertsitateek prozedura egokiak ezarriko dituzte tutoretzen plan, programa eta jardueren behar bezalako zabalkundea egiteko.

20. artikulua. Titulazio-tutoretzak.

1. Titulazioko koordinatzaileek eta tutoreak laguntza eta orientazioa eskainiko dizkiete ikasleei hauen ikasketa-prozesuetan, lan-mundura iragatean eta lanbide-garapenean.

2. Titulazioko tutoretzak honako erraztasun hauek eskainiko ditu:

a) Ikasleak unibertsitate-girora moldatzeko iragan beharreko prozesua gainditzen.

b) Ikaskuntzarako informazioa, orientazioa eta baliabideak eskaintzen.

c) Curriculum-ibilbidea osatzen, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen espezifikotasuna ere aintzat hartuz.

d) Lan-mundura iragaten, lanbide-karreraren hasiera garatzen eta prestakuntza etengabea burutzen.

21. artikulua. Gai edo irakasgai tutoretzak.

1. Ikasleek banakako laguntza eta orientazioa jasoko dituzte beren ikasketa-planeko gai edo irakasgai bakoitzaren ikaskuntza-prozesuan, akademi ikasturtean zehar garatuko diren tutoretza-saioen bidez.

2. Sailen egitekoa da berei adskribituriko irakasleen tutoretzak betetzen direla ziurtatzea, ikasketa-planekin bat eginik eta berei dagozkien ikasketa-irakaskuntzaren programazioaren arabera.

3. Unibertsitateek, beren ikastegi eta sailen bidez, bermatu egingo dute ikasleek tutoretzak jaso ditzatela, bete beharreko irizpideak eta ordutegiak ezarriz.

22. artikulua. Ikasle minusbaliatuentzako tutoretzak.

1. Tutoretza-programak eta tutoretza-jarduerak minusbaliotasunik duten ikasleen premietara moldatu beharko dira, bertako sailek edo ikastegiak, unibertsitate bakoitzeko unitate eskudunak koordinatu eta gainbegiratuta, egin beharreko

metodologi egokitzapenak eginez eta, behar izanez gero, tutoretza espezifikoak ezarriz, ikasleen premien arabera. Tutoretzak toki irisgarrietan burutu beharko dira, minusbaliotasunik duten pertsoneri begiraturik.

2. Tutoretza etengabeko programen ezarpena bultzatuko da, ikasle minusbaliatuek beren ikastaldi osoan zehar irakasle tutorerik izan dezaten.

VI. KAPITULUA

Titulu ofizialak lortzera bideraturiko ikasketetako ikasleentzako irakaskuntza-programazioa eta ebaluazioa.

23. artikulua. Titulu ofizialak lortzera bideraturiko unibertsitate-ikasketen irakaskuntza-programazioa.

1. Unibertsitateak, unibertsitate-arloko eskumenik duten administrazioen laguntzaz, jagon beharko dute bertako titulazio ofizial ezberdinei dagozkien ikasketen irakaskuntzak eta gestioak kalitatezko baldintza berak bete ditzaten.

2. Ikasleek eskubidea dute matrikula egin nahi duteneko gai edo irakasgai irakaskuntza-planak behar besteko aurrekotasunez ezagutzeko eta, nolahi ere, akademi ikasturteroko matrikula-epea ireki baino lehen. Irakaskuntza-planetan irakaskuntzaren helburuak, aurreikusitako ikasketzaren emaitzak, metodologia eta ebaluaziorako sistema eta ezaugarriak zehaztuko dira.

3. Sailek edo ikastegiak, adskribiturik dituzten gai edo irakasgai irakaskuntza-planak onartzeko ardura eta eskumena nori dagokion aintzat hartuz, bermatuko dute planok jasoko dituzten ikastalde guztietan bete daitezela.

4. Titulazio bakoitzaren arduradun ikastegiek, matrikula egiteko epea zabaldu baino lehen, titulazioaren akademi ikasturteroko plangintzaren berri emango dute eta, honen barruan, ikasleak ikasketan eta ikasketzaren eskaini beharreko arduraldia ECTS kreditutan, aurreikusitako irakasleak eta gai edo irakasgai bakoitzeko ordu-banaketa orokorra zehaztuko dira; ikasleek, eskola-ordutegitik at, egin beharko duten lanaren eskakizunak kontutan hartuko duen sail arteko koordinaziotik abiatuta.

5. Unibertsitateek, aitortuta zaien akademia-askatasunaren babesean, gaikako konpentsaziorako mekanismoak ezarriko ahal dituzte eta epaimahaiak osatuko, ikasleak egindako akademi ibilbidea eta lana, oro har, epaitzeko eta erdietsi nahi duen akademi titulua eskuratzeko behar besteko jakintza eta gaitasuna duen erabaki dezaten.

24. artikulua. Kanpoko akademi praktikak.

1. Kanpoko praktikak hezkuntzarako jarduerak dira, ikasleek egin eta unibertsitateek gainbegiraturikoak, ikasleei akademi hezkuntzan zehar jaso eta eskuratu dituzten jakintzak aplikatu eta osatzeko aukera eskaintzeko helburua dutenak, ikasleek lanbide-jardunerako izan ditzaketan trebetasunak eta lan-mundura sartzeko gaitasunak hobetuz.

2. Kanpoko praktiken helburuak dira, ikaslearen prestakuntza teorikoaren eta praktikoaren oreka lortzea, lan-jardunerako metodologiak eskuratzeko eta geroko lan-munduratzea erraztea. Enpresa, instituzio eta erakunde pribatu zein publikoetan egin ahal izango dira, unibertsitatea bera barne, praktika bakoitzaren mota aintzat harturik.

3. Kanpoko praktikak bitarikoak izan daitezke: curriculum barrukoak eta kanpokoak. Curriculum barruko praktikak akademi jarduera arautu eta tutelatuak dira, ikasketa-planen parte direnak. Curriculum kanpoko praktikak, ikasleek, ikastaldiaren zehar, beren borondatez egiten dituzten praktikak dira, nahiz eta helburu berak dituzten, ikasketa-planen barruan ez direnak, gerora Tituluaren Europar Gehigarrian aipa litezkeelarik.

4. Kanpoko praktikak egiteko, unibertsitateek enpresa eta erakundeekiko komenioen ezarpena bultzatuko dute, praktikok ikasle minusbaliatuei ere eskain dakizkiela sustatuz.

5. Praktika-programen plangintza ondoko alderdi hauen arabera osatuko da: ikasleak eskuratu beharreko gaitasunak, ikasleak ECTS kreditutan egin beharreko arduraldia, ikasleak burutu beharreko prestakuntza-jarduerak, hauen egutegia eta ordutegia; bai eta ebaluazio edo balioespen-sistema ere.

6. Curriculum barruko kanpoko praktikak egiteko, ikasleek unibertsitateko tutore akademikoa eta erakunde laguntzaileko tutorea izango dituzte eta hauek adostuko dute ikaslearen hezkuntza-plana eta jarraipena egingo. Curriculumaz ateko kanpoko praktikak direnean, unibertsitateak eta erakunde lankideak egin beharreko tutoretza, beren arteko komenioan ezarrita bezala burutuko da.

7. Unibertsitateak prozedurak ezarriko ditu kanpoko praktiken kalitatea bermatzearren, praktika hauen garapenari buruzko informazio-bilketa eta analisirako eta praktiken plangintza berraztertze mekanismoak, tresnak eta organo edo unitateak barne izanik.

8. Lankidetzakomenioetan, erakunde sinatzaileek finantzaketarik ezarri ahal izango dute, ikasketa-laguntza moduan.

9. Prestakuntzarako kanpoko praktikak ikasleen prestakuntza eta gaitasunera mugatuko dira eta praktiken edukia ez da, inola ere, izango lanpostuei berez dagokien lan-zerbitzuen ordezkio.

10. Osasunaren arloko irakaskuntzarekin erlazionaturiko praktikak europar zuzentarauetan ezarritakoarekin bat etorrita burutuko dira eta, kasuan kasu, arategi espezifikokoak errespetatuz.

25. artikulua. Ikaslearen ikaskuntzaren balioespena.

1. Ikasleen akademi errendimenduaren balioespena irizpide publiko eta objektiboen arabera egingo da eta, ahal denean, ebaluazio jarraitua lehenetsiko, hezkuntzaren erantzukidetasunerako bitarteko eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren elementua delakoan, ikasleari bere ikaste-prozesuaren berri ematen diona.

2. Ebaluazioa gai eta irakasgaiaren irakaskuntza-planetan ezarritakoaren arabera egingo da hertsiki, sailek onetsi bezala.

3. Probak egiteko daten egutegi, ordu eta tokiak, ahozkoak barne, eskumeneko organoak erabakiko ditu, beti ere ikasleen parte hartzea bermatuz eta ikasleak arduraldi osoko edo arduraldi partzialeko diren kontutan harturik.

4. Ebaluazio-proben programazioa ezin izango da aldatu, ez bada, proba behar bezala egitea ezinezko bihurtuko lukeen ustekabeko ezintasuna gertatzen. Salbuespenezko egoera hauen aurrean, titulazioetako arduradunek egin beharreko

kontsultak egingo dituzte ukitutako irakasle eta ikasleekin programazio berria proposatu eta ezartzearen, autonomi arautegian eta unibertsitateen berezko arauetan ezarritakoarekin bat etorrira.

5. Unibertsitate-ordezkaritzarako organo bilduen bileretara joateagatik edo tokian tokiko arautegietan aurreikusitako arrazoiengatik, programatutako ebaluazio-probetara joan ezin diren ikasleek eskubidea izango dute proba hauek egin ahal izateko beste egun eta ordu bat jar dakizkien. Unibertsitateen ardura izango da, beren arautegiari eta autonomia-erkidegokoari jarraituz, examenen garaian eta examenen aurreko egunetan bilerarik ez jartzea.

6. Ebaluazio-sistemak programatzerakoan, autonomi arautegian eta unibertsitatearen berezko arauetan ezarritakoarekin bat etorrira, ekidinen da ikasle berak ikastaro bereko irakasgai desberdinen proba orokorrak hogeita lau ordutatik beherako epean egin beharra. Nolanahi ere eta arestiko arautegiaren arabera, ikasleak eskubidea izango du dagozkion proba orokorrak data eta ordu berean jar ez daitezzen. Urruneko unibertsitateen kasuan, programazio hau beren irakaskuntza eta ebaluazio-metodologiara egokituko da.

7. Ebaluazio-probak egin bitartean, irakasleak edozein unetan eskatu ahal izango die identifikazioa bertaratutako ikasleei eta hauek, ikaslearen txartela, nortasun-agiri nazionala, pasaporte edo, hauen ezean, ebaluatzailearen iritziz, akreditazio nahikoa erakutsi beharko dute.

8. Ikasleek eskubidea izango dute ebaluazio-proba hauek amaitzerakoan beroriek egin izanaren ziurtagiria jasotzeko.

26. artikulua. Ikasle minusbaliatuak.

Ebaluazio-probak egokitu beharko dira minusbaliotasunik duten ikasleen premietara, sailek eta ikastegiak metodologian, egutegian eta eremuetan egin beharreko egokitzapenak egin beharko dituztelarik.

27. artikulua. Ebaluazio-lanak eta oroitidazkiak.

1. Praktikei buruz eta euskarri material bakarreko lan eta oroitidazkiak irakasleak gorde beharko ditu hurrengo ikasturtea amaitu arte, autonomi erkidegoko arautegian eta unibertsitatearen berezko arauetan aurreikusita bezala. Epe hau amaituta eta aipaturiko arautegiarekin bat etorritik, lanok eskatu dituzten ikasle sinatzaileei itzuliko zaizkie, errekurtsoren bat ebatzi zain ez bada.

2. Aurreko pasarteak aipatutako lanak xede hertsiki akademikoez bestelako helburuetarako osorik edo zatika argitaratu edo erreproduzitu nahi badira, egilearen edo egileen baimen espresa beharko da, jabetza intelektualaren legeriari jarraiki.

3. Karrera-amaierako proiektuak, gradu eta master-amaierako lanak eta doktorego-tesiak zein bere arautegi espezifikoaren arabera arautuko dira.

4. Lan hauen ondoriozko argitarapenak eta doktoregokoak, bereziki, jabetza intelektualaren arautegiak arautuko ditu.

28. artikulua. Ebaluazio-epaimahaiak.

1. Ikasleek epaimahai aurreko balioespena eskatu ahal izango dute, unibertsitateek honetarako ezarriko lituzketen baldintza eta arauarekin bat etorrira.

2. Unibertsitateek prozedura egokia ezarri beharko dute, irakasle bat legeak aurreikusitako abstentzio edo errefusatze-egoeran dagoenean, saileko kontseiluak arloko edo arlo kideetako irakasle iraunkorren artean ordezeko irakasle bat izenda dezan.

29. artikulua. Kalifikazioen jakinarazpena.

1. Unibertsitateak araututako epe eta prozedurak errespetatuz, balioespenaren ardura duten irakasleek egindako proben kalifikazioak behar besteko aurrekotasunez argitaratu beharko dituzte, ikasleek aktak emateko epea amaitu aurretik zeinek bere proba berrikusteko eskaria egiteko astia izan dezaten.

2. Kalifikazioekin batera, berauek berrikusi ahal izateko ordutegia, tokia eta data ere argitaratuko dira. Urruneko unibertsitateen kasuan, beren metodologiaren arabera eta komunikazio-eren bidez egin ahal izango da berrikusketa. Informazio hau eta berrikusketarako tokiak egokiak izango dira minusbaliotasunik duten ikasleentzat.

3. Irakasleek, ebaluazio-probetan paperean edo euskarri elektronikoan idatzitako materiala edo, halakoetan, ahozko probei dagokien dokumentazioa gorde beharko dute hurrengo ikasturtea amaitu arte, autonomi erkidegoko arauetan zein unibertsitatearen berezkoetan ezarritakoarekin bat eginda. Berrikusteko eskariak eta kalifikazioaren aurkako errekursoak egiten direnean eta, aipaturiko arautegiarekin bat eginik, ebazpen irmorik izan arte gorde beharko dira.

4. Kalifikazioen jakinarazpenean, informazio-teknologiaren erabilera sustatuko da.

30. artikulua. Irakaslearen aurreko edo epaimahaiaren aurreko berrikusketa.

1. Ikasleek beren probak ikusteko aukera izango dute egindako balioespen-probetako kalifikazioen argitarapena egin eta hurrengo egunetan, autonomi erkidegoko eta unibertsitatearen beraren arauetan aurreikusita bezala, ebaluazio-proba balioetsi duen irakasleak edo irakasgaiko koordinatzaileak jasotako kalifikazioari buruzko ahozko azalpenak jasota. Era berean, autonomi erkidegoko eta unibertsitatearen berezko arauetan ezarri bezala, epaimahaiek balioetsitako ikasleek eskubidea izango dute ariketa hauek epaimahaiaren aurrean berrikusteko. Urruneko unibertsitateen kasuan, komunikazio-bideak egokituko ahal dira beren metodologiara eta komunikazio-teknologietara.

2. Berrikusketa, kasu biotan, autonomi erkidegoaren eta unibertsitatearen beraren arautegiak ezarritako epeak eta prozedurak errespetatuz egin beharko da. Kasu guztietan oro, berrikusketa pertsonala eta banakakoa izango da. Berrikusketa minusbaliotasunik duten ikasleen premietara moldatu beharko da, bertako sailek, unibertsitate bakoitzeko unitate eskudunak koordinatu eta gainbegiratuta, egin beharreko metodologi egokitzapenak eginez eta, behar izanez gero, berrikusketa espezifikoa ezarritako, ikasleen premien arabera.

3. Berrikusketarako epea, unibertsitateak aktak itxi eta argitaratzeko ezarritako epea baino lehen amaituko da.

31. artikulua. Organo eskudunaren aurreko erreklamazioa.

Irakasle edo epaimahaiaren erabakiaren aurka, erreklamaziorik egin ahal izango da, zioak azalduz eta organo eskudunari igorrita. Organo honen proposamenaz, erreklamazio-batzordea osatuko da, aurreko ebaluazio-prozesuan esku hartu duten

irakasleek parte hartu gabe osatuko dena eta ebazpena eman beharko du, unibertsitateek araututako epe eta prozeduren barruan.

32. artikulua. Unibertsitate arloko kultura, kirola, ikasleen ordezkariak, elkartasun eta lankidetzarako jardueren aintzatespen eta transferentzia.

Unibertsitateek prozedura egokia jarriko dute ikasleek jarduera ezberdinengatik akademi aintzatespena jasotzeko duten eskubidea gauza dadin, unibertsitate arloko kultura, kirola, ikasleen ordezkariak, elkartasun eta lankidetzarako jarduerak izanik, beti ere aplikatu legezko arauetan ezarritakoa betez. Hala balegokio, jarduera horiek ikaslearen espedientera eta Tituluaren Europar Gehigarria transferitu eta jasoko dira.

VII. KAPITULUA

Titulu ofizialik lortzeko xederik ez duten ikasketetako ikasleentzako irakaskuntza-programazioa eta ebaluazioa.

33. artikulua. Titulu ofizialik lortzeko xederik ez duten ikasketetako ikasleak.

1. Unibertsitateek ezarri beharreko irizpideak ezarriko dituzte, titulu ofizialik lortzeko xederik ez duten irakaskuntza-mota ezberdinetan ari diren ikasleentzako irakaskuntza-programazioa eta balioespena arautzeko.

2. Nolanahi ere, bermatu egingo da ikasle hauek kalitatezko hezkuntza jasotzeko duten eskubidea, bai eta, matrikula egin aurretik, irakaskuntza-programazioa eta ebaluazio-irizpideak eta berrikusketarako prozedura eta kalifikazioen erreklamazioa ezagutzeko eskubidea ere.

VIII. KAPITULUA

Ikasleen parte hartzea eta ordezkariak

34. artikulua. Printzipio orokorrak.

Unibertsitateak, proiektu kolektiboa den aldetik, hura osatzen duten talde guztien parte hartzea bultzatu behar du. Ikasleek, unibertsitateko jardueraren protagonistak diren heinean, erantzukizun partekatua izan behar dute erabakiak hartzen direnean, demokratikoki aukeratutako ordezkarien bitartez gobernu organoetan parte hartuz. Sexuen arteko parekotasuna eta unibertsitateko kideen sektore garrantzitsuenen arteko oreka zaindu beharko dira.

35. artikulua. Ordezkariak aukeratzea.

1. Unibertsitateko ikasle guztiek konpromisoa daukate modu aktibo eta demokratikoan parte hartzeko beren unibertsitateko, ikastegiko eta saileko gobernu organoetan eta beren taldeetan, beren ordezkariak aukeratuta.

2. Hautesleak eta hautetsiak izan daitezke beren unibertsitateko estatutuaren eta horiek garatzeko arautegietan zehaztutakoaren arabera unibertsitatean matrikulatuta dauden eta titulu ofizial bat lortzera bideratutako ikasketak egiten ari diren ikasleak.

3. Unibertsitateek bultzatu egingo dute ikasleentzako parte hartze aktiboa aukeraketa prozesuetan eta horretarako beharrezko informazioa eta baliabide materialak emango

dituzte, eztabaida sustatuko dute eta ikasleen parte hartzea pizteko mekanismoen diseinuan ikasleak tartean sartzeko moduak erraztu eta bultzatuko dituzte.

4. Titulu ofizial bat lortzera bideratutako ikasketak egiten ari diren ikasleen ordezkariak dira:

a). Beren kideek aukeraturik unibertsitateko kide anitzeko eta ordezkariitza organoetako kide diren ikasleak.

b). Beren kideek aukeraturik, unibertsitate bakoitzaren arautegiaren arabera, bestelako ordezkariitza eginkizunak betetzen dituzten ikasleak.

5. Ikasleen ordezkariak parekotasun printzipioa errespetatu dezatela bultzatuko da eta parte hartzen duten gizon eta emakumeen kopurua proportzionala izan dadila. Horrez gain, ikasleen ordezkarien artean ezgaitasunen bat duten pertsonak ere egon daitezela bultzatuko da.

6. Titulu ofizial bat lortzera bideratuta ez dauden ikasketak egiten ari diren ikasleen ordezkariitza unibertsitate bakoitzaren arauak arautuko dute.

36. artikulua. Ordezkarien eskubideak.

Ikasleen ordezkariak eskubidea dute:

a) Beren ordezkariitza edo eskuordetzeaz askatasunez baliatzeko.

b) Beren iritzia askatasunez adierazteko, arauak eta pertsonakiko eta erakundearekiko errespetuak ezarritakoez bestelako mugarik gabe.

c) Ikasleei eragiten dieten gaiei buruzko informazio zehatza jasotzeko.

d) Erabakiak hartzeko prozesuan eta politika estrategikoetan erantzukidetasunez parte hartzeko.

e) Beren eginkizun akademikoak ordezkariitza eginkizunekin bateragarri egiteko, prestakuntzari kalterik egin gabe. Unibertsitateek prozedurak arbitratuko dituzte aipatutako jarduerak ikasleen ordezkarien eginkizun akademikoari eragin ez diezaieten.

f) Ikasleentzat interesgarria izan daitekeen informazioa zabaltzeko gune fisikoak eta baliabide elektronikoak edukitzeko. Gainera, gune esklusiboak egongo direla bermatuko da, ez bakarrik hedakuntzarako, baita ordezkari lanak egiteko ere. Oinarritzat izango da informazio horrek formatu iragarria izatea eta gune horiek egokituta egotea ezgaitasunen bat dutenen sarbidea eta parte hartzea errazteko.

g) Ikasleen ordezkari moduan dituzten eginkizunak betetzeko beharrezko baliabide tekniko eta ekonomikoak izateko.

37. artikulua. Ordezkarien erantzukizunak.

Ikasleen ordezkariak honako erantzukizun hauek hartzen dituzte beren gain ordezkari gisa dituztenekiko eta unibertsitate erakundearekiko:

a) Bileretara joatea eta unibertsitateko organoen aurrean ordezkari gisa duten taldearen proposamenak, ekimenak eta kritikak bideratzea, unibertsitate bakoitzeko

prozedurari jarraiki edozein ikaslek horrelakoak zuzenean aurkezteko duen eskubideari kalterik egin gabe.

b) Beren kargua dela-eta jasotako informazioa zuzen erabiltzea eta informazio konfidentziala ematen zaien kasuetan, konfidentziasun hori errespetatzea.

c) Unibertsitatearen ondasunak eta eskubideak babestu, sustatu eta defendatzea.

d) Ordezkatzen dituztenei kide anitzeko organoen jardueren eta erabakien eta eurek organo horietan egiten duten lanaren berri ematea.

38. artikulua. Ikasleen parte hartzea eta ikasleen elkarte, federazio eta konfederazioen sustapena.

1. Estatutu honek eta unibertsitateen beren arautegiek xedatutakoari jarraiki, ikasleen parte hartzea bultzatuko da gizarte elkarte eta mugimenduetan, bizikidetasunaren eta herritartasunaren balioetan heztearen adierazgarri.

2. Unibertsitatearen beraren helburuen barruan ikasleen elkarte, talde, federazio eta konfederazioen sorrera sustatuko da. Horien helburua izango da beren estatutuetan xedatutako moduan ikasleen intereseko jarduerak garatzea.

3. Ikasleek, bai bakarka, bai aipatutako taldeetan antolatuta, proaktibotasunez eta erantzukidetasunez lagundu behar dute honako hauek lortzen:

a) Oreka, parekotasuna eta aukera berdintasuna ikasleen ordezkartzan eta elkarteen ordezkartza organoetan.

b) Emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna proiektuak aurkezterakoan.

c) Ezgaitasunen bat duten ikasleen parte hartzearen sustapena.

d) Unibertsitateen konpromisoa jasangarritasunarekiko eta jarduera osasungarriekiko.

e) Beren jarduera burutzen duten campusen diseinua eta horietako politika estrategikoak, eta bereziki, campusen hobekuntza jasangarritasunaren, osasungarritasunaren eta solidaritatearen alderditik.

4. Unibertsitateek, euren aukeren barruan, elkarteen jarduerak garatzeko eta horien funtzionamendua bermatzeko lokalak eta baliabideak jarriko dituzte.

5. Unibertsitate gaietan eskumenak dituzten administrazioek eta unibertsitateek partidak izango dituzte aurrekontuetan elkarte horien kudeaketa eta ikasleek horietan parte hartzea diruz laguntzeko. Betiere berdintasun printzipioa errespetatuko da eta ez da inor diskriminatuko honako arrazoi hauengatik: sexua, arraza, erlijioa, nazionalitatea, ezgaitasuna, sexu orientazioa, genero identitatea edo bestelako egoera pertsonal edo gizarte arazoiren bat.

6. Unibertsitateek, beren jarduera eremuaren barruan, ikasleen elkartearen erregistro bat eduki ahalko dute. Elkarte horietarako baldintzak eta funtzionamendu arauak zehaztu egin beharko dira.

39. artikulua. Nazio mailako eta nazioarteko erakundeetan parte hartzea.

1. Unibertsitateetako ikasleen elkarteek, hala erregistratuta badaude, eskubidea izango dute nazio mailako edo nazioarteko sareetan edo konfederazioetan integratzeko.

2. Integrazio hori gauzatzeko, unibertsitate gaietan eskumenak dituzten administrazioek eta unibertsitateek diru laguntzak sustatuko dituzte, eta, aldi berean, integrazio hori erraztuko duten baliabide materialak egon daitezela zainduko dute.

IX. KAPITULUA

Ikasleentzako beka eta laguntzak

40. artikulua. Beka eta laguntzen programen oinarriko printzipioak.

1. Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia erkidegoek eta unibertsitateek bermatu egin beharko dute ikasleek beka eta laguntzen programetan parte hartzeko eta egoera jakinetan babesa jasotzeko duten eskubidea. Horretarako programa eta deialdi orokorrak edo berezkoak garatu beharko dituzte, betiere, ikasle batek berak ere arrazoi ekonomikoak direla-eta unibertsitateko ikasketei uko egin behar ez izatearen printzipio orokorra errespetatuz.

2. Beka eta laguntzen programek, hala dagokienean, progresibotasunaren printzipioa aplikatuko dute. Hala, ikasle bakoitzari esleitutako zenbatekoak, kasu bakoitzean, bere egoera sozioekonomikoari eta bere benetako premiei egokituko zaizkie.

3. Beka eta laguntzen programek nahikotasun eta berdintasun printzipioak zainduko dituzte eta ikasleek onura akademikoa atera dezatela bultzatuko dute.

41. artikulua. Ikasleen parte hartzea.

1. Ikasleek, Unibertsitateko Ikasleen Estatuko Kontseiluaren bitartez, ikasteko beka eta laguntzen estatuko programen diseinuan parte hartuko dute eta, ikasleen ordezkarietako kide anitzeko organoen bitartez, autonomia erkidegoetako eta unibertsitateetako programenean, kasu bakoitzerako zehaztutako baldintzen arabera.

2. Halaber, ikasleek bekadunak aukeratzeko unibertsitate bakoitzaren kide anitzeko organoetan parte hartuko dute unibertsitateek euren arautegietan jasotako ikasleen ordezkarietako organoen bitartez.

42. artikulua. Beka eta laguntzen programak.

1. Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia erkidegoek eta unibertsitateek, zeinek bere eskumenen barruan, ikasteko beka eta laguntzen programa orokorrak eta berezkoak arautu eta garatuko dituzte.

2. Legeak xedatutakoaren arabera, beka jasotzeko eskubidea izango dute ikasketara arautuak egiten ari diren eta kasuan kasuko deialdietan zehazten diren baldintzak betetzen dituzten ikasle guztiek.

3. Beka eta laguntzak jasotzen dituzten ikasleek horiek jasotzen jarraituko dute, ezartzen diren mugen barruan, unibertsitateko ikasle diren artean eta betiere, beka eta laguntza horiek eman izana justifikatzen duten arrazoiak aldatzen ez diren bitartean.

4. Halaber, beken deialdietarako ezartzen diren baldintzek kontuan izango dituzte ikasleak gainditutako kredituen haztapena, kasuan kasuko ikasketen zikloa bereiziz, eta dagokion jakintza adarreko errendimendu eta eraginkortasun tasak.

43. artikulua. Bermeak.

1. Beken politikaren kudeaketa berdintasun eta eraginkortasun printzipioetan oinarrituko da.

2. Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia erkidegoek eta unibertsitateek, zeinek bere esparruan eta bakoitzak aplikatu beharreko arauari jarraiki, bekak eta laguntzak emateko espedienteak ahalik eta lasterren ebatziko dituzte.

3. Hezkuntza Ministerioak, Beken, Laguntzen eta Errendimendu Akademikoaren Behatokiaren bitartez, beken sistemak berdintasun eta eraginkortasun printzipioak errespetatzen dituela zainduko du eta ikasleek bertan parte har dezatela bermatuko du.

X. KAPITULUA

Elkarbizitza aktiboa eta unibertsitatearen erantzukidetasuna sustatzea

44. artikulua. Elkarbizitza sustatzea.

Unibertsitate bakoitzeko errektoreari dagokio unibertsitateko kideen elkarbizitza eta haien eskubide eta betebeharren errespetua sustatzeari buruzko erabakiak hartzea.

45. artikulua. Unibertsitatearen erantzukidetasuna.

1. Unibertsitate bakoitzak erantzukidetasun batzordeak sortu ahalko ditu bere ikastegietan. Batzorde horiek osatuko dituzte irakasleek, ikasleek eta administrazio eta zerbitzuetako langileek.

2. Batzorde horien helburua izango da analisia, eztabaida, kritika eta proposamenak egitea honako hauei buruz: batetik, etika, kultura eta gizartearekin lotutako arazoak direla-eta unibertsitateko kideen ekarpenak jaso ditzaketen gaiak eta bestetik, unibertsitateari berari eragiten dietenak, unibertsitatea irakaskuntzako eta elkarbizitzako espazioa den aldetik. Batzorde hauek ez dira zehatzaileak izango.

46. artikulua. Unibertsitateko arartekoa.

1. Unibertsitateko organo eta zerbitzuen jardueren aurrean irakasleen, ikasleen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen eskubideak eta askatasunak errespetatzen direla zaintzeko, 6/2001 Lege Organikoaren hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraiki, unibertsitateek unibertsitateko arartekoaren irudia sortuko dute beren egituran. Arartekoaren jarduerak, betiere unibertsitatearen kalitatea bere esparru guztietan hobetzera bideratuak, ez dira inolako unibertsitate organoen aginduen menpe egongo eta independentzia eta autonomia printzipioek gidatuko dituzte.

2. Unibertsitateko arartekoek bitartekaritza eta adiskidetze lanak eta jardunbide egokiei dagozkienak hartu ahalko dituzte beren gain unibertsitateetako estatutueta eta horiek garatzeko xedapenetan zehaztutakoaren arabera, eta bereziki bizikidetasuna, etikaren kultura, erantzukidetasuna eta praktika onak bultzatuko dituzte.

3. Unibertsitateko arartekoek aholkuak emango dizkiete ikasleei erreklamazioak egiteko dauden administrazio prozedurei buruz, beste administrazio organo batzuen eskumenei kalterik egin gabe.

4. Ikasleek unibertsitateko arartekoarengana jo ahalko dute euren eskubideak eta askatasunak urratzen direnean, unibertsitateen estatutuetan eta horiek garatzeko xedapenetan zehaztutakoari jarraiki.

5. Ikasleek unibertsitateko arartekoarekin lankidetzan jardungo dute, banaka edo, hala dagokionean, beren ordezkarien bitartez, unibertsitateek ezarritako baldintzak errespetatuz eta haiek emandako bideak erabiliz.

XI. KAPITULUA

Unibertsitateko Ikasleen Estatuko Kontseilua

47. artikulua. Izaera eta atxikipena.

1. Unibertsitateko Ikasleen Estatuko Kontseilua ikasleek Hezkuntza Ministerioaren aurrean deliberatzeko, kontsultak egiteko eta parte hartzeko duten organoa da.

2. Unibertsitateko Ikasleen Estatuko Kontseilua Hezkuntza Ministerioari atxikita dago Unibertsitateen Idazkaritza Nagusiaren bitartez.

48. artikulua. Osaera.

1. Honako hauek izango dira Unibertsitateko Ikasleen Estatuko Kontseiluko osakideak:

a) Espainiako unibertsitate bakoitzeko, publiko eta pribatuetako, ikasle ordezkari bat. Ikasleen Kontseilua edo pareko ikasleen ordezkari organo bat duten unibertsitateetan, ordezkaria kontseiluko burua izango da, edo haren irudi baliokidea. Ikasleen Kontseilurik ez duten unibertsitateetan ordezkaria Gobernu Kontseiluak izendatuko du bertako ikasle hautetsiek proposaturik.

b) Estatuko Eskola Kontseiluak hezkuntza sistemarekin, eta zehazkiago, bigarren hezkuntzarekin eta lanbide hezkuntzarekin lotuta dituen eskumenak direla-eta, kontseiluan sartuta dauden ikasleen elkartearen konfederazio eta federazio bakoitzeko ordezkari bat, unibertsitateko ikaslea bera.

c) Dagoeneko osatuta dauden edo etorkizunean osatuko diren Ikasleen Kontseilu Autonomiko bakoitzeko ordezkari bat, unibertsitateko ikaslea bera.

d) Hiru ordezkari, unibertsitateko ikasleak, interes orokorrak lortzeko lan egiten duten eta aurreko b) puntuko biderei jarraituz ordezkari ez dauden ikasleen konfederazio, federazio eta elkarteetakoak, bat entitate bakoitzeko. Konfederazio, federazio edo elkarte horiek, euren kideen artean, ordezkariak izan beharko dituzte gutxienez sei unibertsitateko ikasleen kontseiluetan edo gobernu kontseiluetan eta unibertsitate horiek, gutxienez, hiru autonomia erkidegotan egon beharko dira. Federazio erakunde handiago baten zati diren entitateen ordezkaria entitateok erakunde horretan daukaten ordezkari bera izango da. Unibertsitateko Ikasleen Estatuko Kontseiluaren arautegiak zehaztuko du ordezkariok izendatzeko sistema.

e) Kontseiluko buruak izendatutako bost kide, unibertsitateetako edo ikasleen arloko elkarte edo erakundeetako gobernu kontseilu etako kide diren edo izan diren eta goi mailako hezkuntzan izen handia duten pertsonen artetik aukeratuak. Horietako bat, gutxienez, egoera larriagoan dauden eta/edo ahulagoak diren taldeen esparruko izen handiko aditua izango da.

f) Horrez gain, Unibertsitateko Ikasleen Estatuko Kontseiluko berezko kideak izango dira:

i. Hezkuntza ministroa, kontseiluko burua izango dena.

ii. Unibertsitateen idazkari nagusia, lehenengo buruordea izango dena.

iii. Unibertsitate Prestakuntza eta Orientazioko Zuzendaritza Nagusiko titularra, idazkaria izango dena.

2. Ikasleen ordezkarietako bat, Osoko Bilkurak aukeratuak, bigarren buruordea izango da.

3. Unibertsitateko Ikasleen Estatuko Kontseiluaren osaeran emakumeen eta gizonen arteko orekaren printzipioa zainduko da Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoko 54. artikuluan jasotakoaren arabera.

49. artikulua. Kontseilua osatu eta berritzea.

1. Kontseiluko buruak kontseilua osatzeko bilerarako deia egingo du estatutu hau indarrean sartu eta 4 hilabete naturaleko gehienezko epean.

2. Aurreko atalean xedatutakoa betetzeko, unibertsitateek ministeriora bidaliko dituzte beren ikasleen ordezkarien izendapenak estatutu hau indarrean sartu eta hiru hilabeteko gehienezko epean.

50. artikulua.- Unibertsitateko Ikasleen Estatuko Kontseiluko kideen agintaldia.

Kontseiluko kideen agintaldia, kontseiluko berezko kideena izan ezik, honako hau izango da:

a) Kasuan kasuko unibertsitateetako ikasleen ordezkariak bi urteko agintaldia izango dute aukeratzen dituztenetik hasita, agintaldi hori estatutu honetan jasotako beste arrazoiren bategatik amaitu ez bada. Hala ere, ordezkariok beren eginkizunak betetzen jarraituko dute beren ordezkioak izendatu arte.

b) Kontseiluko buruak izendatutako kideen agintaldia estatutu honetan kargua uzteko jasotako arrazoietakoren bat ematen denean bukatuko da. Horiek ere, beren eginkizunak betetzen jarraituko dute beren ordezkioak izendatu arte.

51. artikulua. Eginkizunak.

Unibertsitateko Ikasleen Estatuko Kontseiluaren eginkizunak dira:

a) Unibertsitateko ikasleen gaietarako eta Unibertsitateko Ikasleen Estatuko Kontseiluaren txostena eskatzen duten gaietarako gobernuak dituen politika proposamenen irizpideei buruzko irizpena ematea.

b) Hezkuntza Ministerioaren aurrean mintzaide izatea, ikasleei dagozkien gaietan.

c) Ikasleen eskubideak defendatzeko lan egitea, ikasleen elkarteekin eta ikasleen ordezkariak organoekin lankidetzan.

d) Unibertsitateetako gobernu organoek behar bezala jardun dezatela zaintzea unibertsitate bakoitzaren estatutuetan jasotzen diren ikasleen eskubide eta betebeharrei dagokienez.

e) Unibertsitateko ikasleek aurkeztutako keak jasotzea eta, hala dagokionean, horiek bideratzea.

f) Unibertsitateko arartekoekin lankidetzan aritzea, Espainiako unibertsitateetako ikasleen eskubideak bermatzeko.

g) Beste erakunde eta entitate batzuekin harremanak sortzea bere erakunde helburuak bultzatu eta garatzeko.

h) Bere eskumeneko gaii buruzko proposamenak gobernuari aurkeztea.

i) Iritzia ematea, egokitzat jotzen denean, Hezkuntza ministroak, Unibertsitateen idazkari nagusiak edo bestelako instantzia batek edozein gairi buruz bere iritzia eskatzen duenean.

j) Titulazioen mapari buruzko txostenak ezagutzea.

k) Ikasleei zuzendutako bekak eta bestelako laguntzak emateko irizpideak finkatzen parte hartzea eta prozesu horretan ordezkariak edukitzea, estatuaren eskumenen esparruan.

l) Ikasleen asoziazionismoa eta ikasleek unibertsitateko bizitzan duten parte hartzea bultzatzea.

m) Bere ekimenez erabakiak hartzea eta administrazioaren, komunikabideen eta gizartearen aurrean ikasleen mintzaide izatea, estatuaren eskumenen esparruan.

n) Unibertsitatean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna zaintzea eta bultzatzea.

o) Estatutu hau betetzen dela zaintzea.

p) Unibertsitateko Ikasleen Estatutuak, hura garatzeko arauak eta indarreko legeriak esleitzen diren beste edozein eginkizun.

52. artikulua. Funtzionamendua.

1. Unibertsitateko Ikasleen Estatuko Kontseiluak jardungo du Osoko Bilkura eginez eta batzorde iraunkor baten bitartez. Barne antolaketa eta funtzionamendurako arautegiak beste batzorde batzuk eratzea aurreikusi ahalko du, zehaztuko diren osaearekin eta eskumenekin.

2. Horrez gain, Unibertsitateko Ikasleen Estatuko Kontseiluaren, Unibertsitateen Kontseiluaren eta Unibertsitate Politikarako Konferentzia Orokorraren arteko koordinaziorako batzorde mistoen sorrera bultzatuko da.

3. Kontseiluaren organoen osaeran zaindu egingo da generoen arteko parekotasuna.

53. artikulua. Osoko Bilkura.

1. Osoko Bilkura urtean hiru aldiz egingo da gutxienez. Horrez gain, kontseiluko buruaren ustez egoki denean eta kontseiluko kideen herenek hala eskatzen dutenean ere egingo da.

2. Osoko Bilkurari dagokio:

a) Kontseiluaren barne antolaketa eta funtzionamendurako arautegiaren proposamena egin eta onartzea eta Hezkuntza ministroari aurkeztea, hark behin betiko onar dezan.

b) Kontseiluaren barne antolaketa eta funtzionamendurako arautegia osorik edo zati baten aldatzeko proposamena onartzea, eta Hezkuntza ministroari aurkeztea, hark behin betiko onar dezan. Proposamen hori kontseiluko kideetako edozeinek aurkeztu ahaliko du eta Osoko Bilkuraren bi herenen onspena lortu beharko du.

c) Beste funtzionamendu arau batzuk prestatu eta onartzea.

d) Kontseiluko buruak eta Batzorde Iraunkorrak prestatutako kudeaketa plana onartzea.

e) Bigarren buruordea aukeratzea.

f) Batzorde Iraunkorrerako ikasleen ordezkariak aukeratzea 55. artikuluan ezarritakoaren arabera.

g) Bi urtean behin jardueri eta Espainiako unibertsitate sistemaren diagnostikoari buruzko txostena egitea bere eskumenen eremuan.

h) Kontseiluari dagokion eta kontseiluko beste organo batzuei beren beregi esleitu ez zaien beste edozein eginkizun.

54. artikulua. Batzorde Iraunkorraren osaera.

1. Batzorde Iraunkorraren osakideak dira:

a) Kontseiluko burua, batzordeburu izango dena, eta kontseiluko lehenengo buruordea, bigarren buruordea eta idazkaria, batzordean ere hala jardungo dutenak.

b) Ikasleen bost ordezkari, Osoko Bilkurak kontseiluko ikasleen artetik aukeratuak. Osoko Bilkurak horietako bat Batzorde Iraunkorreko idazkariorde izendatuko du.

2. Batzorde Iraunkorreko kide diren ikasleen agintaldiaren iraupena bi urtekoa izango da, kide horiek kontseiluan duten agintaldia estatutu honetan jasotako beste arrazoiren bategatik amaitu ez bada. Hala ere, kideok beren eginkizunak betetzen jarraituko dute beren ordezkioak izendatu arte.

55. artikulua. Kontseiluko burua.

1. Unibertsitateko Ikasleen Estatuko Kontseiluko burua kontseiluaren ordezkari gorena izango da.

2. Kontseiluko burua ez dagoenean lehenengo buruordea izango da kontseiluko buru eta azken hau ez dagoenean, bigarren buruordea.

56. artikulua. Kontseiluko buruaren eginkizunak.

Honako hauek dira kontseiluko buruaren eginkizunak:

a) Unibertsitateko Ikasleen Estatuko Kontseiluaren Osoko Bilkurarako deia egitea eta haren buru izatea eta Batzorde Iraunkorraren bileretarako deia egitea horien buru izatea.

b) Osoko Bilkuraren saioak moderatu eta zuzentzea bilkuraren barne antolaketa eta funtzionamendurako arautegian xedatutakoaren arabera.

c) Unibertsitateko Ikasleen Estatuko Kontseilua ordezkatzeko edozein pertsona fisiko edo juridikoren aurrean.

d) Unibertsitateko Ikasleen Estatuko Kontseiluko kideei bere eskumeneko gaien berri zehatza ematea.

e) Osoko Bilkuraren edo Batzorde Iraunkorraren erabakiak bete eta betearaztea.

f) Osoko Bilkurak, estatutu honek, barne funtzionamendurako arauak eta indarreko legeriak esleitutako beste edozein eginkizun.

57. artikulua.- Lehenengo eta bigarren buruordeen eginkizunak.

Lehenengo eta bigarren buruordeen eginkizunak dira:

a) Kontseiluko buruari laguntzea bere eskumenez baliatzerakoan.

b) Lehenengo buruordeak kontseiluko burua ordezkatzeko du hura ez dagoenean.

c) Bigarren buruordeak kontseiluko burua ordezkatzeko du hura eta lehenengo buruordea ez daudenean.

d) Osoko Bilkurak, barne antolaketa eta funtzionamendurako arautegiak edo indarreko legeriak agindutako beste edozein eginkizun.

58. artikulua. Idazkariaren eginkizunak.

1. Idazkariari dagokio:

a) Osoko Bilkuraren eta Batzorde Iraunkorraren bileretako aktak egitea.

b) Hartutako erabakien ziurtagiriak egitea.

c) Aktak eta kontseiluaren esku dagoen gainerako dokumentazioa zaintzea.

d) Osoko Bilkurak, barne antolaketa eta funtzionamendurako arautegiak edo indarreko legeriak agindutako beste edozein eginkizun.

2. Idazkaria ez badago, Batzorde Iraunkorreko idazkariordeak ordezkatzeko du.

59. artikulua. Batzorde Iraunkorraren eginkizunak.

Hauetik dira Batzorde Iraunkorraren eginkizunak:

- a) Kudeaketa plana prestatzea eta gauzatzea.
- b) Osoko Bilkurak bildu ezin duenean, bilkuraren buruak premiazkoztat jotzen dituen gaiak ebaztea. Gaiok, ondoren, egiten den lehenengo Osoko Bilkuran berretsi beharko dira.
- c) Osoko Bilkurak, kontseiluaren barne antolaketa eta funtzionamendurako arategiak eta indarreko legeriak beren beregi agindu dizkieten gaiak ebaztea eta ondoren, Osoko Bilkurari horien berri ematea.
- d) Estatutu honetan jasotako beste edozein.

60. artikulua. Kontseiluko kideek kargua uzteko arrazoiak.

1. Kontseiluan ikasleen ordezkariak direnek kargua uzteko arrazoiak izango dira:

- a) Euren hala eskatzea..
- b) Kontseiluan ikasleen ordezkari izateko agintaldia bukatzea.
- c) Ordezkatzen duten unibertsitateko ikasle izateari uztea.
- d) Beren unibertsitateko ikasleen ordezkari izendatzeko arrazoia desagertzea.
- e) Ordezkatzen duten ikasleen konfederazio edo elkartereko kide izateari uztea.

2. Kontseiluko buruak izendatutako kideek kargua utziko dute:

- a) Euren hala eskatuta.
- b) Izendatu zituenak hala eskatuta.

3. Kontseiluan ikasleen ordezkari direnek kargua utzi ondoren, idazkariak kasuan kasuko unibertsitateari eskatuko dio beharrezkoak diren ordezkariak aukera ditzala. Unibertsitateak jakinarazpena jaso eta bi hilabeteko gehienezko epean igorri beharko du proposamena. La universidad deberá remitir la propuesta en el plazo máximo de dos meses desde la notificación.

4. Kontseiluko buruak izendatutako kideen karguak hutsik geratzen direnean, hark hilabeteko gehienezko epea izango du kideon ordezkariak izendatzeko.

XII. KAPITULUA

Ikasleen kirol jarduera

61. artikulua. Printzipio orokorrak.

1. Jarduera fisikoa eta kirol jarduera ikaslearen prestakuntzaren zati bat da. Hori dela-eta, autonomia erkidegoek eta unibertsitateek egiturak eta programak garatuko

dituzte eta beharrezkoak diren baliabide materialak eta guneak jarriko dituzte ikasleek baldintzarik egokienetan kirol jarduerak egin ditzaten.

2. Ikasleek unibertsitateak beren eskura jartzen dituen instalazioak eta ekipamenduak erabiltzeko eskubidea eta horiek zaintzeko betebeharra dute. Horrez gain, beren arautegiek xedatutako bestelako eskubide eta betebeharrak izango dituzte.

62. artikulua. Ikasleen jarduera fisikoa eta kirol jarduera.

1. Unibertsitateko ikasleen kirol jarduerak bi eratakoak izan ahalko dira: batetik, lehiakortasunik gabeko kirolak eta kirol jarduerak eta bestetik, barne txapelketetan, autonomia erkidegokoetan, nazio barrukoetan edo nazioartekoetan antolatutakoak.

2. Unibertsitateek ikasleen jarduera akademikoaren eta kirol jardueraren bateragarritasuna bultzatuko dute.

3. Unibertsitateek honako hauek bultzatuko dituzte: jarduera fisikoa eta kirol jarduera, bizitza osasungarria izateko ohiturak eta lehiakortasun ona eta joko garbia bezalako balioen garapena, aurkariarekiko errespetua, integrazioa eta talde lanarekiko konpromisoa, solidaritatea eta arautegiaren edo jokoaren arauen errespetua eta horiek aplikatzen dituztenekikoa.

4. Egungo antolamenduak ezarritako baldintzei jarraiki, Kirol Kontseilu Gorenak aitortutako goi mailako kirolariaren maila dutenei edo autonomia erkidegoek aitortutako kirolari prestatuaren maila edo antzekoa dutenei unibertsitateek erraztu egingo diete unibertsitatera sartzea, orientazio eta jarraipen sistemak erabiltzea eta ikasketak kirol jarduerarekin bateragarri egitea.

5. Horrez gain, unibertsitateek jarduera fisikoarekin eta kirolarekin lotutako programak bultzatuko dituzte ezgaitasunen bat duten ikasleentzat eta horretarako, baliabideak jarri eta kasuan kasuko instalazioak egokituko dituzte.

XIII. KAPITULUA

Balioetan hezte

63. artikulua. Printzipio orokorrak.

1. Unibertsitateak bertan elkarrekin bizi direnen eta han ikasten eta lan egiten duten pertsonen prestakuntza osorako espazioa izan behar du. Horregatik, unibertsitateak baldintza egokiak izan behar ditu hark ikasleengan bultzatu nahi dituen balioak irakaskuntzan eta ikerketan egon daitezela bermatzeko. Balio horiek dira: askatasuna, berdintasuna eta solidaritatea, baita aniztasunarekiko errespetua eta haren balioaren aitortpena, bere historia era kritikoan onartuz. Horrez gain, ingurumenarekin eta jasangarritasunarekin lotutako balioak bultzatuko ditu maila desberdinetan eta unibertsitatean bertan islatuko ditu unibertsitateko langileei eskatzen dizkien eta gizartean proiektatu nahi dituen eredu etikoak. Ondorioz, unibertsitatearen jarduna zintzotasunak, egiazkotasunak, zorrotzasunak, justiziak, eraginkortasunak, errespetuak eta erantzukizunak gidatu beharko dute.

2. Unibertsitateko jarduerak baldintza egokiak sustatu behar ditu ikasleek:

a) Autonomiaz lan egin dezaten eta euren erabakiak hartzeko eta horien arabera jarduteko gai izan daitezen;

b) Erantzukizunez joka dezaten eta euren ekintzen ondorioak bere gain hartzeko prest egon daitezen;

c) Zentzuz joka dezaten, euren onerako dena lortzeko gai izan daitezen eta hori lortzeko bidean besteekin bat egin dezaten;

d) Justiziaren zentzua izan dezaten eta legeak ezaguturik, beste batzuekin dituzten desadostasunak arrazoiz, objektibotasunez eta inpartzialtasunez konpontzeko prest egon daitezen;

e) Gaitasuna izan dezaten euren aukera eta erabakien ondorioek ukitutako pertsona guztiak euren erantzukizunaren eremuan sartzeko, bereziki euren interesak defendatzeko edo horien balioa agertzeko gaitasun gutxien dutenak.

3. Unibertsitateek ikasleen prestakuntzan balio hauek indartzera bideratutako neurriak sustatuko dituzte.

XIV. KAPITULUA.

Ikasleen jarduerak gizarte partaidetzaren eta garapenerako lankidetzaren arloan

64. artikulua.- Printzipio orokorrak.

1. Unibertsitateak gizarte partaidetzaren eta garapenerako lankidetzaren arloan egin beharreko lana oso lotuta dago unibertsitatearen beraren jarduera eremuarekin, hain zuzen irakaskuntza, ikerketa eta ezagutzaren transferentziarekin. Gai horiek oinarrizkoak dira ikasleen prestakuntzarako alde batetik, eta giza garapena eta garapen jasangarria tokiko mailan edo maila unibertsalean lortzea mehatxatzen duten arazoak hobeto ulertzeko bestetik. Gainera, aholkularitza zientifikoa eta profesionala, bai eta unibertsitateko kideen eta inguruko en sentsibilizazioa ere, unibertsitateak arlo horietan dituen oinarrizko konpromisoak dira.

2. Konpromiso horien adierazgarri direla ulertuta, ikasleek gizarte partaidetzari eta garapenerako lankidetzari lotuta dituzten eskubideak eta betebeharrak honako hauek dira:

a) Unibertsitateak planifikatutako gizarte partaidetzako eta garapenerako lankidetzako jardueretan parte hartzeko eskubidea. Jarduerok argitara eman beharko dira kasuan kasuko aukeraketa irizpideekin.

b) Unibertsitateak sinatutako lankidetzaren hitzarmenen esparruan gizarte partaidetzako eta garapenerako lankidetzarako jarduerak egiteko doako prestakuntza jasotzeko eskubidea.

c) Gizarte partaidetzako eta garapenerako lankidetzarako jardueretan parte hartzeko eskatu bada, jarduera horiek behar bezala gauzatzeko antolatutako prestakuntza jardueretan parte hartzea betebeharra.

d) Bere jarduerak burutzeko gaitzen edo identifikatzen duen boluntario eta/edo lankide akreditazioa izateko eskubidea.

e) Gizarte partaidetzako jardueretan eta jarduera boluntarioetan emandako zerbitzuak egiaztatzen dituen unibertsitatearen ziurtagiri bat jasotzeko eskubidea.

Ziurtagirian agertuko dira ikasleak boluntario edo lankide moduan emandako zerbitzuen data, iraupena eta izaera.

3. Unibertsitateek sustatu egin beharko dute practicum (titulazio batzuetan nahitaezkoa eta beste batzuetan borondatezkoa dena) garapenerako lankidetzako eta gizarte partaidetzako proiektuetan egitea, ikasleek euren ikasketa aldian lortutako gaitasunak erabili ahal ditzaten. Horrek barne hartzen du gai hauetan lortutako prestakuntzaren aitorpena lortzeko ikasleek duten eskubidea. Halaber, gizarte eta hiritarrekiko erantzukizuneko praktikak sustatuko dituzte, titulazio desberdinetako ezagutza akademikoak eta bizi kalitatea hobetzera eta gizarte inklusiora bideratutako komunitate zerbitzuak uztartuko dituztenak.

4. Garapenerako lankidetzako eta gizarte partaidetzako proiektuetan ezgaitasunen bat duten ikasleek parte har dezatela sustatuko da.

XV. KAPITULUA

Unibertsitateko ikasleentzako arreta

65. artikulua.- Ikasleentzako arreta zerbitzuak.

1. Ikasleen prestakuntzarako tresna osagarri moduan, unibertsitateek ikasleentzako arreta atalak eduki ahalko dituzte euren aurrekontuen kargura edo kanpoko erakundeekin egindako hitzarmenen bitartez.

2. Atalok, unibertsitate bakoitzean duten egitura organikoa alde batera utzita, tutoretza sistemekin, tutoreen prestakuntzarako ekintzekin eta unibertsitateko programa eta zerbitzu guztiekin estu lotuta eta koordinatuta garatu beharko dituzte beren eginkizunak.

3. Horretarako, atal horiek honako esparru hauei buruzko informazioa eta orientazioa eman ahalko dute:

a) Ikasketak aukeratzea eta horiek birformulatu edo aldatzea unibertsitatean sartu eta unibertsitate eremura egokitzeko.

b) Unibertsitateko lan metodologia eta ikasteko estrategien inguruko prestakuntza, hezkuntza sistemako etapa batzuetatik besteetara iragaterakoan eta unibertsitateko ikasketek dirauten artean ikasleei laguntzeko, errendimendu akademikoa eta garapen pertsonala eta soziala errazteari begira.

c) Prestakuntza ibilbideak eta irteera profesionalak, zeharkako gaitasunen arloko prestakuntza eta proiektu profesionalaren diseinua, enplegu aukerak eta laneratzea errazteko.

d) Unibertsitateko ikasketak eta bizitza osoko prestakuntza jarduerak.

e) Ikasteko beka eta laguntzak.

f) Unibertsitate barruko eta kanpoko eskubide eta betebeharrei buruzko aholkularitza.

g) Aholkularitza psikologikoa eta osasun gaiei buruzkoa.

h) Ikasleen asoziazionismoa eta parte hartzea.

i) Kultur ekimenak eta jarduerak, gizarte hedakuntzakoak, lankidetzakoak eta gizartearekiko konpromisoak.

j) Ostatu zerbitzuei eta kirol zerbitzuei buruzko informazioa, baita ikasleak unibertsitatean integratzera bideratutako beste zerbitzu batzuei buruzkoa ere.

k) Emakumeen eta gizonen arteko tratu berdintasuna.

4. Unibertsitateek ikasleen eta ikasleen elkarten parte hartzea bultzatuko dute ikasleentzako arreta ataletan kasuan kasuko arautegiek zehaztutakoaren arabera.

5. Unibertsitateek mugitzeko ezgaitasunak eta/edo arazoak dituzten ikasleentzako garraio egokituko zerbitzuak sor eta manten daitezela proposatu eta bultzatuko dute.

6. Unibertsitate bakoitzak ezgaitasunak dituzten unibertsitateko kideen arretarako zerbitzuak sor daitezela bultzatuko du, talde honek eskatzen dituen zerbitzuak ematea ahalbidetuko duen egitura bat sortuz.

7. Espainiako unibertsitateek zaindu egin beharko dute eskura dauden tresna eta formatuek bermatu egingo dutela ezgaitasunen bat duten ikasleek prestakuntza jasotzeko eta informazioa eskuratzeko aukera berdinak izatea.

8. Urrutiko ikasketa eta/edo unibertsitateen web orriak eta baliabide elektronikoak, Informazioaren Gizartearen eta Merkataritza Elektronikoaren Zerbitzuei buruzko Legeak ezarritakoa betez, ezgaitasunen bat duten pertsonak erabiltzeko egokiak izango dira eta bertan dagoen informazioa erraz jaisteko moduan egongo da.

66. artikulua. Ikasleen ostatu zerbitzuak.

1. Unibertsitateek, ahal duten neurrian, beren ikasleentzako ostatua eskainiko dute, gutxieneko duintasun baldintzak beteko dituen, beren estatutuetan zehaztutako baldintzetan. Horretarako, berezko ikastetxe nagusiak edo erakunde publiko zein pribatuekin egindako hitzarmenen bidez atxikitakoak izan ahalko dituzte edo unibertsitateko ikasleentzako bestelako egoitzak.

2. Ostatu zerbitzuak erabili eta kudeatzeko arautegiak bermatu egingo du, betiere, ikasleen eskubide berdintasuna.

3. Horrez gain, unibertsitateak berak sortutako ikastetxe nagusiak eta egoitzak erabiltzeko prozedura publiko, objektibo eta gardenak ezarriko dira. Prozedura horiek aurrerapen nahikoarekin ezagutaraziko dira eta ikasketa eta jakintza adar desberdinetatik datozen ikasleek ostatu hartzea ahalbidetuko dute.

4. Unibertsitateko eskola eta egoitzen instalazioak ezgaitasunak dituzten pertsonak erabiltzeko egokiak izan beharko dira.

5. Unibertsitateak berak sortutako ikastetxe nagusien eta egoitzen zuzendaritza taldeak aukeratzeko prozedurak unibertsitate bakoitzaren estatutuetan zehaztuko dira. Ikastetxe nagusietan eta egoitzetan ostatu hartzen duten ikasleek ere parte hartuko dute talde horietan. Halaber, kasu bakoitzean egoki diren barne erregimeneko arautegien sorrera ere estatutuetan jasoko da.

6. Unibertsitateak berak sortutako ikastetxe nagusiek eta egoitzek, hala ezarriz gero, ostatuari dagozkion berezko jardueraz gain, bertan ostatu hartzen dutenen garapen pertsonala eta integrazioa, eta haien elkarbizitza eta solidaritatea sustatuko duten prestakuntza, gizarte eta kultur jarduerak egin ahalko dituzte.

XVI. KAPITULUA

Ikasle ohien elkarteak

67. artikulua. Ikasle ohien elkartearen antolaketa.

1. Unibertsitateetako ikasle ohiak elkarteetan antolatu ahalko dira eta elkarte horiek unibertsitateetan erregistratu beharko dira haiek ezarritako baldintza eta prozedurei jarraiki.

2. Ikasle ohien elkarteek euren unibertsitateen irudia sustatuko dute eta bertako tituluak laneratzen, ikasle berriak aurkitzen eta kultur jarduerak edo interes sozialen bat dutenak antolatzen lagunduko dute. Ikasle ohien elkarteek unibertsitatea helburutzat duten mezenasgo jarduerak bultzatuko dituzte, baita unibertsitatearen eta gizartearen arteko harremanak estutzeko balio duten beste edozein jarduerara ere.

3. Unibertsitateek ikasle ohien elkartearen jarduerara bultzatuko dute. Horretarako, baliabideak jarriko dituzte eta titulatuaren artean informazio eta hedakuntzako jarduerak sustatuko dituzte.

4. Unibertsitateek ikasle ohien elkartearen nazioarteko hedakuntza, sareen sorrera eta unibertsitatearen arteko jarduerak bultzatuko dituzte.